

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko urtarrilaren 8tik 12rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: EBZren AKTAK



Datuaren analisia

Aste honetan, EBZren diru-politikari buruzko azken bileraren aktak argitaratu ziren. Horietatik ondoriozta daiteke inflazioak bere helburura hurbiltzea lortuko duenaren ustea gero eta handiagoa dela.

Halaber, Euroguneko ekonomiaren susperraldiak sendo jarraitzen duela ere adierazten dute. Guztiarekin, bileraren akten arabera, badirudi EBZko zuzendariak merkatuak prestatzen has daitezkeela laster, erakundearen pizgarrien politika etete aldera.


Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 herrialdeetako diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB:KPI



Copyright© 2018 Bloomberg Finance L.P. 12-Jan-2018 14:34:4

US CPI Urban Consumers MoM SA 0.1 -0.3
US CPI Urban Consumers Less Food & Energy MoM SA 0.3 +0.2

IPC General MoM
IPC Subyacente MoM

Datuaren analisia

Urte arteko KPIa % 2,1ekoa izan zen abenduan, azaroan baino hamarren bat gutxiago. Kontsultatutako analistek aurreikusi zuten zifra bera da. Azpiko KPIaren datua espero zena baino pixka bat handiagoa izan zen, urte arteko % 1,8ra igo baitzen, aurreikusitako %1,7aren aldean. Hileko datuei begiratuta, KPI orokorrak % 0,1 egin zuen gora, eta azpikoa (produktu energetikoak eta prestatu gabeko elikagaiak kanpoan utzita) % 0,3ra igo zen, aurreko hileko % 0,1etik.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisia

Kontsumorako prezioen indizeak % 1,6 egin zuen gora 2017an, baina lau hamarren egin zuen behera aurreko urteko % 2arekin alderatuta. Abenduan, KPIaren igoera urte arteko % 1,8koa izan zen; hau da, azaroko datua baino hamarren bat gehiago.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
01/15	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
01/15	Alemania	Handizkako urte artek prezioen indizea	--
01/16	Japonia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0,4
01/16	Alemania	Hileko KPIa	% 0,6
01/16	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	--
01/16	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0,5
01/16	Italia	Balantza komertziala guztira	--
01/16	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	18.5
01/17	Eurogunea	Hileko eraikuntzaren ekoizpena	--
01/17	Eurogunea	YoY azpiko KPIa	% 0,9
01/17	Eurogunea	Hileko KPIa	% 0,4
01/17	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
01/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,4
01/17	Estatu Batuak	Fabriken ekoizpena (SIC)	% 0,3
01/17	Estatu Batuak	Etxebizitzaren merkatuaren NAHB indizea	72
01/17	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
01/18	Japonia	Hileko industria-ekoizpena	--
01/18	Txina	Hiruhileko BPGd SA	% 1,7
01/18	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 10,2
01/18	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6,1
01/18	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1270k
01/18	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 2,1
01/18	Estatu Batuak	Hileko eraikuntza-baimenak	-% 0,6
01/18	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	23.0
01/18	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
01/18	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
01/19	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0,2
01/19	Espainia	Balantza komertziala	--
01/19	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	-% 1,1
01/19	Estatu Batuak	Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea	97.0

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Burtsako indizeen balantzea nahiko positiboa izan zen astearen bukaeran Europan eta AEBetan, eta mistoa Asian. Europan, EBZren azken bileraren akten arabera, diru-agintaritzak bere ibilbide-orria alda lezake 2018aren hasieran. Alemanian, Merkel eta lider sozialdemokratik koalizio-gobernu bat osatzeko akordio bat egin zuten. Brexitari dagokionez, negoziazioak akordio komertzialik egin gabe amaitzeko aukerak handiak direnez, epe iragankorrek 21 hilabete iraun lezake, edo 5 urte, beste zenbaiten arabera. Asiara begira, Txinak bonu iparramerikarren erosketak murriztu edo bertan behera utzi zezakeelako zurrumurruak, geroago gezurtatu zena, eragina izan zuen burtsetan. Halaber, Japoniako banku zentralak hamar urtetik gorako mugaeguna duten bonuen erosketak murriztu zituen, eta, ondorioz, *tapering* prozesu baten hasieraren zurrumurruak areagotu ziren.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Local)	1.641,52	1,00	3,49
IBEX 35	10.462,40	0,49	4,17
DJ EURO STOXX 50	3.612,61	0,14	3,10
DJ STOXX 50	3.242,88	0,33	2,05
FTSE	7.778,64	0,70	1,18
S&P 500	2.786,24	1,57	4,21
Dow Jones	25.803,19	2,01	4,39
NASDAQ	7.261,06	1,74	5,18
NIKKEI 225	23.653,82	-0,26	3,90
MSCI GORAKORRAK (Lo	63.065,28	0,60	3,59
MEXBOL	49.135,91	-1,51	-0,44
BOVESPA	79.349,12	0,35	3,86
SHANGHAI	3.591,27	1,10	3,69
Errusia Rts Mosku	1.261,07	3,38	9,24

ERRENTA FINKOA:

TIRreek, oro har, gora egin zuten core zorraren merkatuan, bai Europan bai Estatu Batuetan. Gainera, EBZren tonu zuhurragoak tasa alemaniarren igoera ekarri zuen. Gauzak horrela, 10 urterako bonuaren errentagarritasuna 7 op igo zen, % 0,58raino. Zor espainiarri dagokionez, hamar urterako bonuari eskatutako errentagarritasunak 2 op egin zuen behera, % 1,50eraino. AEBetan, Txinako albisteak *treasuries* tituluetan eragina izan zuen, nahiz eta zurrumurrua gezurtatu zenean zuzendu ziren. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,57	0,04	0,06
ESPAINIA 2 URTE	-0,37	0,02	-0,02
AEB 2 URTE	2,00	0,04	0,11
ALEMANIA 10 URTE	0,58	0,07	0,15
ESPAINIA 10 URTE	1,50	-0,02	-0,07
AEB 10 URTE	2,55	0,07	0,14
ALEMANIA 30 URTE	1,32	0,05	0,06
ESPAINIA 30 URTE	2,74	-0,07	-0,11
AEB 30 URTE	2,85	0,04	0,11
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/22	44,12	0,50	-0,80
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/22	228,66	6,59	-3,77

DIBISAK/LEHENGAIK:

EBZren tonu zuhurragoa Europako dibisan nabaritu zen, astearen amaieran % 0,73 irabazi baitzuen dolarraren aurrean. Japoniako Bankuak bonuen erosketak aldi batez murriztu zuenez eta Txinari buruzko zurrumurruren ondorioz, Yenaren balioa handitu zen. Lehengaietan, berriz, petrolioaren prezioa % 2,86 handitu zen. LPEE eta Errusiak ekoizpenean egin zituzten murrizketek eta AEBetan petrolio gordinaren inbentarioen beherakadak kotizazioa igotzen lagundu zuten. Urrea, aldiz, % 1,41 igo zen, 1.337,95 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
Dolarra / Euroa	1,21	0,73	0,94
Yena / Euroa	134,98	-0,99	-0,28
Libera / Euroa	0,89	-0,21	-0,30

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	70,03	2,86	4,80
Urrea	1.337,95	1,41	2,68

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.